2. mailako *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaia. 2013-2014 ikasturtea

2. ariketa (hiriaren eskala)

Hiriko erdigunearen azterketa



San Bartolome komentuaren eta Tabakotegiaren arteko hiri-segida. Nerea Aranburu, 1994 (irakaslea, Iñaki Galarraga).

Ikasleek, taldeka, Donostiako erdiguneko hiri-segida interesgarrien azterketa, neurketa eta adierazpen grafikoa egin beharko dute. Horretarako, hurrengo hiru ibilbideak proposatu dira, talde bakoitzak —esleitu moduan— bat landu dezan:

1. Aquariuma – Kaimingaintxo plaza – Bulebarra – Bretxako merkatua – Zurriola zubia – Claret Aita plaza (1, 4, 7, 10, 13, 16 eta 19. taldeak).
2. Trinitate plaza – Konstituzio plaza – Bretxako merkatua – Okendo plaza – Santa Katalina zubia – Teresa Kalkutakoa plaza – Hirutxulo plaza (2, 5, 8, 11, 14, 17 eta 20. taldeak).
3. Zuloaga plaza – Bretxako merkatua – Gipuzkoa plaza – Bilbo plaza – Maria Kristina zubia – Tabakotegia (3, 6, 9, 12, 15 eta 18. taldeak).

Arreta berezia eskainiko zaio hiri-segiden eta Bretxako merkatuaren arteko erlazioari, tailer bateratuko jomuga den heinean.

Praktikaren helburua da hiri-segida bakoitzaren aberasgarritasun espaziala grafikoki islatzea, bai oinean —ibilbide osoa— bai sekzioan —espazio interesgarrienak—, Internetetik jaitsi daitezkeen planoetatik askoz ere harago joanez, nahiz eta www.gipuzkoa.net webguneko kartografia oinarri gisa erabili. Izan ere, behe-solairuko erabilera publikoko espazio guztiak adieraztea eskatzen da —arkupeak eta ekipamendu komunitarioak, bereziki—, Leonardo Bufalinik 1551n edo Giambattista Nollik 1748an beren Erromako plano ezagunetan egin bezala.

Marrazkiaren xehetasun maila planoaren eskalarenera egokituko da. Segida bakoitzari informazio garrantzitsuena gehituko zaio (kota nagusiak, ekipamenduen izenak, iparra, eskala, eskala grafikoa, planoaren izenburua…). Urriaren 16ko tailer bateratuaren azken bi orduetan aurkezpen publikoak egingo dira. Talde bakoitzak din A-1 plano bat edo bi emango ditu, urriaren 23ko (asteazkena) eskola teorikoaren hasieran.

Oharra: oinarria osatzeko kartografia bektoriala http://www.gipuzkoa.net/ webgunetik jaitsi daiteke (plano topografikoa zein katastroko partzelarioa).

Donostian, 2013ko irailaren 26an

Irakasleak: Bixente Taberna eta Unai Fdz. de Betoño